

# HAU BIKOTE MAITAGARRIA

*Doinua: "Iparragirre abila dela"*

1

Bakoitzak dogu geure bizitza  
tokatzen dan modukoa;  
umorez hartu ta bizi behar,  
dana ez da gustokoa.  
Bartolo eta Lide  
alkarren bizikide  
uztarri aproposkoa;  
berrogei urtez agertu dabe  
zer dan amodiozkoa.

2

Mundu honetan amodioak  
bide ezbardinak ditu,  
gitxien uste dan bide baten  
alkargana errenditu.  
Hor kaiolan bi txori  
mila esker Frankori,  
hau zelan leiken sinistu...  
Kartzelan katez lotuta, baina  
maitez alkarren katigu.

3

Euskalerrria dala medio  
hor alkarraz maitemindu,  
baietz bero bat emon ondoren  
horra bikotea findu.  
Eta gure Bartolo  
Liden ondoan lolo,  
eszena hau nok bardindu?  
Amodioak dana gozaten  
eta bizitza arindu.

4

Ez da semerik, ez alabarik  
senide, lagunak mila,  
amodioa dagon lekuan  
senitarte biribila.  
Zabal ate ta mahaia  
hemen sarri da jaia,  
ez inora joan bila;  
ez da gitxitzen eta bai gehitzen  
Bartoloneko kuadrila.

5

Larogei urte jaio zirala  
berrogei urte ezkondu,  
askok nahi baino hobeto dira  
Buenos Airesen konpondu  
Bizileku dotore,  
hamar mila kolore  
artista eskuz atondu;  
hauxe besterik gaur ezin dogu:  
eskerronez zoriondu.

6

Piper ta porru, aza, kipula,  
sagar, kerixa, makatza,  
ikusgarria da Larrabetzun  
Yon eta Biden baratza...  
Otoitz, bedeinkazino,  
lagun gara, karino...  
Nok ulertu Liden dantza?  
Buenos Airesen ez da faltako  
pipermina eta gatza...

7

Jaunari esker, jaiotzaz gara  
zorionez euskaldunak,  
pozez gainezka jarri gaitu gaur  
Bartolo-Liden egunak.  
Beste urte askotan  
holan izatekotan  
lagun daizuela Jaunak.  
jarraitu daigun orain arte lez  
urte askotan lagunak.

8

Kontuak kontu baino gehiago  
hemen beti da zerjana,  
Bartolo-Lidek egiten dabe  
dauken dana erdibana.  
Mila esker esanda  
noiz da hurrengo txanda?  
pozik gatoz zuengana,  
Jaunak bedeinka zaiezela ta  
agur bikote laztana! Aita Martzel